

2. BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua lagungarria izan daiteke ikasleentzako, ikasterako orduan denbora gutxiago galduko dutelako haien zalantzak argituz eta kontzeptuak hobeto barneratuz.

Balio kuantitatiboari begira, gure produktua lehiakideengandik bereizten gaituena prezioa izan daiteke, hots, behin txartela erosita ez duzu hilabetero ordaindu beharko, lehenengo ordainketan guztia barne baitago. Hala ere, kurtsoa amaitzean txartela desaktibatuko da. Horrela beste kurtso bat aplikazioa izatea nahi izanez gero, berriz aktibatu beharko duzu.

Aldiz, balio kualitatiboari dagokionez, ikasleentzako beste aplikazio lagungarriei begira, ez dago aplikaziorik lagundu ahal diezaiekena laburpenak egiten, zalantzak argitzen, kontzeptuak barneratzen...

Beste berezitasun bat pertsonalizazioa izango da. Hasieran esan dugun bezala, aplikaziora sartu bezain pronto identifikatuko zaituzten galdera batzuk aterako zaizkizue non aplikazioa zure ikasteko zailtasunei egokituko zaizuen.

Azkenik eskuragarritasuna eta honi lotuta erabilerraztasuna aurki dezakegu. Esan dugun moduan, txartelak eskuragarri dauzkagu edoizein herriko liburutegietan edota estankonetan. Gainera, informazioa prozesatzeko ekipamendua behar izango dugu (mugikorra, ordenagailua, tableta...) aplikazioa deskarga dezagun eta orkorrean guztiok eskuragarri izaten dugu. Bestetik erabilerraztasuna nabarmena da aplikazioaren formatoa sinplea delako.

